



Denbora

1 Bikoteak

Pozik, haserre, triste edo beldurtuta. Nola ote daude pertsona hauek? Lau lagun hauei aurpegira begiratu, eta ea igartzen duzun zer sentitzen duten.




TRISTE

POZIK

HASERRE

IZUTUTA





3 Itzalak

Txomin irakasleak benetako aztia dirudi txapela horrekin. Itzalei begirada bat eman, eta asmatuko al zenuke zein den Txominen txapelarena?

2 Kopiatu koadroz koadro

Idoiari asko gustatzen zaio txangoak egin, eta bidean topatzen dituen loreak biltzea. Hona hemen etxeko lorategian aurkitu duen lorea. Ea alboko laukietan lorea marrazteko gai zaren.




Erantzunak: 1.-a-izututa, b-triste, c-pozik eta d-haserre 3.-d. 4.-4 eta 7. 5.-3 eta 5

-pasa


4 Bikiak

Pello eta bere lagunak hondartzara joan dira kometekin jolastera. Zein irudi polita! Bertan daudela, bi kometa berdin dituztela ohartu dira. Zein kometa errepikatzen da?




5 Sarraileak

Bizikletak
gordetzen dituzten
sotoko bi giltza
eman dizkio amak
Jaioneri. Giltza
sorta honi
begiratuta,
bereizten al
duzu zein diren
sotokoak?



Urarekin jolasean!

Joko dibertigarri honetan aritzeko, komenigarria da eguraldi ona egitea. Urarekin jolastu behar da, eta, beraz, bat baino gehiago busti egin daiteke



1. Jokalari guztiak zutik jarriko dira, eta biribil bat osatuko dute. Jokalari bakoitzak plastikozko edalontzi bat izango du ahoan, eta eskuak bizkarraren atzean.
2. Jokoa hasteko, jokalari baten edalontzia urez bete behar da.
3. Keinua egin, eta edalontzia urez beteta duen jokalaria eskuinean duen lagunaren edalontzia betetzen saiatuko da. Hori bai, ezingo ditu eskuak ezertarako erabili.
4. Hala, ura edalontziz edalontzi pasatzea izango da jokalarien zeregina. Jokaldia ur guztia bukatzean amaituko da. Ura zenbat edalontzitatik pasatu den zenbatuko dugu, hurrengo jokaldian emaitza gaititu edo hobetzeko asmoz.